

DATUEN BABESERAKO POLITIKA DEFINITU ETA EZARTZEKO AGIRI ERABILGARRIA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) ezarri behar da 2018ko maiatzaren 25az geroztik eta horrek esan nahi du erakundeetan datuak babesteko politika definitzerakoan eta ezartzerakoan **jarrera proaktiboa** behar dela.

Jada ez da nahikoa gure datuen fitxategia kudeatzea eta datuak zuzentzeko, baja emateko... aukerez informatzea. Datuak tratatzeko baimena eskatu behar dugunean, berariazko baimena behar da iraganean berariazko baimen hori lortu ez dugun pertsonen datuak kudeatzeko, baita lehenengo aldiz eskatu behar diegunen datuak kudeatzeko ere.

Gainera, gure datuen babeserako politika definitu eta jakinarazi beharra daukagu eta datuen babesaren inguruko arriskuak kudeatu ere bai. Eta gure politika diseinatzen ari garen une beretik egitea komeni zaigu (pribatutasuna eta babesa diseinutik bertatik). Bestalde, datuak eskatu dizkiegun pertsonak horiek informatu beharra daukagu eta beren datuak kudeatzen ditugunak ere bai, besteak beste.


Hirugarren gizarte-sektoreko erakundeak pertsona askoren (bazkideen, boluntarioen, erabiltzaileen, langileen...) **datuen tratamenduaren arduradunak gara** eta hirugarren batzuei eska diezaiekegu datu horien trata ditzaten (adibidez, laneko aholkularitza batekin bagabiltza nominak kudeatzeko, mutualitate batekin...). Era berean, hirugarren baten **tratamenduaren arduradunak** izan gaitezke (adibidez, administrazio publiko bateko zerbitzu bat hornitzen ari bagara).

Jarraian daude prozesuaren aurretik eta prozesuak dirauen bitartean kontuan izatea komeni den agiri batzuk (esteka bakoitzetik sar zaitezke agirietan).

Prozesua hasi aurretik eta dirauen bitartean kontuan izan beharreko agiriak

- [Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.](#)
- [Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko hutsen zuzenketa](#)
- [Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren gida tratamenduaren arduradunentzat.](#)
- [Pribatutasuna eta babesa diseinutik.](#)

Prozesuan kontuan izateko agiriak



1. URRATSA: Egin [arriskuen azterketa](#).

2. URRATSA: Arrisku handia egonez gero, egin [eraginaren ebaluazioa](#).

Puntu honetan, kontuan izan [eraginaren ebaluazioari buruzko jarraibideak](#).

3. URRATSA: Definitu edo gainbegiratu zure datuen babeserako politika

[DBEOren azalpen-gidan](#) informazio oso erabilgarria dago zure datuen babeserako politika definitzeko edo gainbegiratzeko (gehienetan abiapunturen bat izaten baitugu) eta ezartzeko ere bai; hori guztia erregelamenduaren arabera. [Pribatutasuna eta babesa diseinutik](#) izeneko agirian ikuspegiak, estrategiak eta osagai teknikoak dituzu, erakundearen politika diseinatzeko hasten zareten une beretik kontuan izateko.

4. URRATSA: Ezarri eta, dagokionean, berriro hasi prozesua.

Interesatuak informatzeko betebeharra betetzeko, [Informatzeko eginbeharra betetzeko gida](#) kontsulta dezakezu. Gida horretan praktikarik hoberenei buruzko jarraibideak daude, baita egin beharreko datu-tratamenduen gorabeheren eta baldintzen inguruko jarraibideak eta dauden eskubideak ere.

FIGURAK: TRATAMENDUAREN ORDEZKARIA, ARDURADUNA ETA ERAGILEA

DBEOk figura berri bat sartu du, datuen babesaren ordezkaria (pertsona fisikoa) eta aurrez zeudenei gehitu zaie: tratamenduaren arduraduna eta eragilea (pertsona fisikoak izan daitezke, baina gehienetan juridikoak dira).

